



## “EZAGUEREN ALDAMIATZEA” TAILERRA

### Ikaste emaitzak

- Ikasleek beren bizi-eremuko ingurumen-arazoen berri izatea, sortzen ditugun hondakinak gizarte arazoak direla ulertzea eta arazo hori guztion artean konpondu behar dugula kontzientzia hartzea.

### Edukiak

#### *Kontzeptuzkoak*

- Lau B-ak: beheratzea (hondakinak murriztea), berrerabiltzea, birziklatzea, eta birpentsatzea.
- Materia organikoa konposta bihurtzeko prozesua ezagutzea.
- Hamaiketako garaian sortzen dugun hondakinen kuantifikazioa.
- Zero Zabor European eta Munduan.

#### *Prozedurazkoak*

- Hondakinen arazoa birpentsatzeko ideia berriak sortzea.
- Gogoeta egitea eta komunean jartzea.
- Talde lanean, ikasturte oso batetan gela batek zein eskola guztiak murriztutako hondakinen kalkulua (lehen tailerrean sortutako kopuruarekin jolastuz, matematika eragiteken bidez) eta horren ondorioen analisisa.
- Web orri baten esplorazioa

#### *Jarrerazkoak*

- Ingurunearekiko errespetua eta hura zaindu beharraz kontzientzia hartzea.
- Arazo konplexuei buruzko hausnarketa irekia bultzatzea.
- Jakin mina sustatzea.

## Baliabideak eta antolaketa

Hirugarren tailer hau egiteko, ez da behar bestelako materialik. Bai ordea, interesgarria suertatzen da hamaiketako baina lehenago egitea tailer hau, lehen tailerraren antzera, sortutako hondakinen auditoria berri bat egingo delako. **Atsedendiaren ondoren egitekotan tailer hau, hamaiketakoan sortutako hondakinak gordetzea eskatuko zaie aldez aurretik.**

## Tenporizazioa

EDUKIA	DENBORA
Aurreko bi tailerretakoa berrikusi	15´
Hondakinen auditoria berria	15´
Murrizketen kalkulua	20´
Web orria bistaratzea eta ondorioak	10´
<b>GUZTIRA</b>	<b>60´</b>

## Aldamiatze tailerraren sekuentzia

### *Aurreko bi tailerretakoa berrikusi: 15´*

Ikasle bat aterako da arbelera, eta beste ikasleek botatzen dituzten ideiak eta kontzeptuak apuntatzen joango da. Hezitzaileak ideia eta kontzeptu guzti horiek lotzen eta zentzua ematen joango zaie (Beheratu, berrerabili, birziklatu, Konposta, hondakin lehorra eta hezea, zaborteziak, materia organikoa, gertuko lurraldearen okupazioa,...).

### *Hondakinen auditoria berria: 15´*

Lehen tailerrean egin zen bezala, hamaiketako mahaiaren gainean ipinita, sortuko diren hondakinen auditoria berri bat egingo da. Hau da, kopurua eta mota aztertuko dira. Lortzen den zenbakia, lehen tailerrean lortutakoarekin alderatuko da, eta murrizketarik dagoen egiaztatuko da. Hala balitz, lortutako murrizketaren esanahiaz arituko gera.

## ***Murrizketen kalkulua:20´***

Ikasleek lortutako murrizketen onurak modu errealago batetan ikus ditzaten, egun bakar batetan lortutakoa, ikasturte guztira, ikastetxe guztira eta herri guztira estrapolatu egingo da, matematika eragiketa erraz batzuk erabiliz. Helburua da, ikustea nola keinu txiki batek, berebiziko garrantzia izan dezakeen epe ertainera eta luzera, batez ere haien gertuko ingurumenean.

Gela bakoitzean lortutako zenbaki guztiak, word dokumentu batetan jasoko dira, kopia bat gelako ordenagailuan utziaz eta bestea Aranzadiren artxiboan gordeaz, ondoren, analisi estatistikoa egin ahal izateko.

## ***Web orria bistaratzea eta bukaerako ondorioak 10´***

Azkeneko 10 minutuetan, Zero Zabor filosofia laburbildu egingo da, azpimarratuz helburu<sup>1</sup> bat lortzeko jarrera bat dela, eta ez zenbaki huts bat. Ondorengo web orriaren bistaratzea egingo da gelan bertan, PDI delakoa erabiliaz:

→ [www.zerowasteurope.org](http://www.zerowasteurope.org)

Web orri honen bitartez lau ikaste emaitza lortu nahi dira:

- Interneteko web orri baten esplorazioa (informazioa bilatzea).
- Europako eta munduko beste herrietan, Zero Zabor inguruan zer egiten den ikustea.
- Zero zabor kontzeptuaren izaera globala hausnartzea (herriak, enpresak, eskolak?).
- Ingelesez web orri batetan nabigatzen ikastea

